OLABIDE IKASTOLA

# 08/09 ikasturtean aplika daitekeen ordutegi-proposamena dela-eta

## *Sobre la propuesta de alternativas horarias para su posible aplicación en el curso 2008/09*

Vitoria-Gasteizen, 2008ko urtarrilaren 23an

Familia agurgarriok:

**2008/09 ikasturtean aplika daitekeen ordutegi-proposamenak** ezinegona sortu du, logikoa denez, familien artean, izan ere familia askoren bizimoduari eta antolaketari eragin liezaioke.

Artezkaritza Kontseiluak ikusi du Ikastolako ordutegiak antolatu eta arrazionalizatu egin behar direla eta etorkizuna bermatu behar dela; hala bada, beren kezka zabaldu zuen eta eredu alternatibo bat eman nahi izan zuen **KOOPERATIBISTEN BATZAR NAGUSIAN**. Lerro hauek baliatu nahi ditugu jakinarazteko zein urrats eman nahi dugun; horretara, benetako datuetan oinarritutako eztabaida ahalbidetuko dugu, bai eta Olabide osatzen dugun guztion etorkizuna indartuko duen erabakia askatasunez eta lasaitunez hartzen lagundu ere; ziur gaude Artezkaritza Kontseiluaren zeregina dela, interes partikularren gainetik, ikastola osoarentzat garrantzitsuak diren gaiak aztertzea, planteatzea, eta, hala balegokio, erabakitzea.

Eta horrelaxe egin du orain ere, ordutegi-alternatiben kasuan, Batzarrean aurkeztu baitzuen txosten xehetua. Batzarrera bertaratutako guztiei (84) eman zitzaien txostena, eta hala nahi duten bazkideek eskura dezateke Ikastolako Idazkaritzan, edo ikastolako web gunean, **www.olabideikastola.com** -en irakurri.

Batzarrean jasotako ekarpenak aintzat hartu eta 2. txostena egingo da. Uste dugu prest egongo dela otsailaren erdialderako; garai horretan egingo dira Geletako Ordezkarien bilerak, etapaka. Txosten horretan argi azalduko dira zein diren alternatibak eta proposatuko da ea zein ikasturtetan inplementatu daitekeen.

Estimadas familias:

La **"Propuesta de alternativas horarias para su posible aplicación en el curso 2008/09"** ha generado entre las familias la lógica inquietud, al afectar a la vida y organización de muchas familias.

El Consejo Rector, viendo la necesidad de ordenar y racionalizar los horarios de la Ikastola y asegurar su futuro, decidió informar de sus preocupaciones y avanzar un modelo alternativo en la **ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE COOPERATIVISTAS**. Por medio de estas líneas deseamos informar de los pasos que pretendemos dar y , contribuir así a establecer un debate basado en la certeza de los datos y en el interés por optar libre y serenamente por una decisión que refuerce el futuro de toda la colectividad de Olabide, en el convencimiento de que es misión del Consejo Rector estudiar, plantear y en su caso decidir, los temas que considera relevantes para el conjunto de la ikastola, por encima de los intereses particulares.

Así lo ha hecho ahora también respecto al estudio de alternativas horarias, presentando a la asamblea pasada un informe detallado al respecto. Este informe se repartió a todos los asistentes (84) y está disponible para cualquier socio que esté interesado en la Secretaria de la ikastola, o en la página web de la ikastola, **www.olabideikastola.com**.

Fruto de las aportaciones que se recibieron en la asamblea, se va a elaborar un 2º informe que calculamos tendremos listo a mediados de febrero para su debate en reuniones por etapas con los Representantes de Clase. En él se definirán con precisión las alternativas existentes y se propondrá en qué curso pueden ser implementadas.

Behin betiko txostena egingo dugu bilera horietako ekarpen guztiak jasotakoan, eta otsailaren bukaera aldera emango diegu txostena familiei, azter dezaten eta urtero egiten dugun inkestan txostenari buruz duten iritzia eman dezaten.

Artezkaritza Kontseiluak inkestan jasotako datuak aztertu eta jakinaraziko ditu, eta hartutako erabakia ere emango du, martxoaren 12ko Geletako Ordezkarien Batzarrean.

Gure ustez, horrela eginez gero, familia gehienen iritzia jaso ez ezik, gehienen iritzia errespetatuko du.

Horrenbestez, **azterketa eta eztabaida prozesu honetan parte hartzeko eskatzen dizuegu**, hartutako erabakia Olabide ikastolaren eta familia gehienen mesedetan izan dadin.

Oraingoz, besterik ez,

A finales de febrero, con las aportaciones recibidas en estas reuniones, pasaremos a todas las familias el informe definitivo, para que lo analicen y emitan su opinión dentro de la encuesta que pasamos anualmente.

El Consejo Rector analizará los datos recibidos en la encuesta, los hará saber y emitirá su decisión, en la Asamblea de Representantes de Clase del 12 de marzo.

Creemos que así, además de recoger la opinión de todas las familias, la decisión respetara con mayor certeza la opinión de todos y todas.

En consecuencia, **os pedimos la máxima participación en este proceso de análisis y debate**, para que la decisión que se adopte beneficie a la ikastola Olabide y al mayor número de familias.

Sin otro particular por el momento,

**Artezkaritza Kontseilua**